

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Jakinaraztea, interesdunaren helbidea ezin jakinez, ofizioz baja emango zaiela Udalaren biztanle erroldan**

Helbide ezezaguna dutelako ezin izan zaienez jakinarazi interesdunei erabaki hau, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erki-dearenak, 59.5 artikuluan ezartzen duena betez, iragarki hau ALHAOn argitaratuz jakinarazten zaie ebazpen hau: "Ikusirik Adolfo Borja Jimenez (NAN: 44977965Q), María Dolores Borja Barraul (NAN 09799809S), Juan Antonio Borja Borja (NAN: 79176247N), David Borja Borja (NAN: 79176248J), Olaia Borja Borja (ez du NANik), Janire Borja Borja (ez du NANik) eta María de los Angeles Borja Borjari (ez du NANik) ofizioz baja emateko izapidetu den espedientea.

Kontuan izanda Araudiaren 75. artikuluan xedatutakoa eta udalaren biztanle erroldak kudeatu eta berrikusteari buruz udalei emandako jarraibide teknikoak, alkate lehendakari honek, 2016ko irailaren 29an, ebatzi du:

Lehenengoa. Izapidetzeko onartzea eta ofizioz espedientea irekitzea Udalaren biztanle erroldan baja emateko, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik.

Bigarrena. Interesdunei ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duten azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean aukera izan dezaten alegazioak egiteko eta zuzen erroldatuta daudela egiaztatzeko, edo helbidez aldatu direla edo egun zein udalerritan bizi diren jakinarazteko.

Hirugarrena. Epe hori igaro eta alegaziorik aurkezten ez bada, interesdunei ofizioz baja ematea Udalaren biztanle erroldan, gaizki erroldatuta egoteagatik.

Alkate lehendakaria, Sergio Tato Eguren."

Okondo, 2016ko irailaren 29a

*Alkatea*

**SERGIO TATO EGUREN**